

Praktika erlijiosorik gabe urte asko eman eta gero, 21 urte nituela konbertitu nintzen

Nire ama ere konbertitu zen eta
berriro jaunartu zuen bere
ezkontza egunetik 30 urte igaro
eta gero

2004 Abu 16

Sabine Lachowitz, Austriako
Voelkermarkt-ekoa da eta 26 urte
ditu. Donostiara etorri da urtebetez

Nafarroako Unibertsitateko Ayete
Ikasleen Egoitzaren Zerbitzu
Orokorretan lan egitera.

Zertarako egonaldi hau?

Gaztelania ikasteko gogoia nuen eta
baita herrialdearen kultura ezagutu
eta esperientzia berria lortzeko
asmoa ere.

Nola ezagutu zenuen Opus Dei?

Duela hiru urte, Vienan bizi nintzela.
Done Jakue Bidea egiteko gogoz
nengoen baina bakarrik egin nahi ez,
eta laguntzaile baten bila nenbilen.
Halatan, adiskide baten bitartez,
espainiar neska bat ezagutu nuen,
Vienan bizi zena. Bera ere Done
Jakue Bidea egiteko prestakizunetan
ari zen austriar neska batzuekin.
Geroxeago zenbait neska espainiar
gehiago ere elkartu zitzaion taldeari.

Egun haietako batean, lanaz aldatu
nahi nuela bota nuen. Vienako

lorategigintza enpresa batean
nengoen enplegatuta eta lana
gustukoa bazitzaidan ere, ez nengoen
pozik inguratzen ninduen
giroarekin. Vienara behin itzuli eta
gero, Waehring izeneko
estudianteentzako Egoitzan hasi
nintzen lanean; sukaldeko lanetan
hasi nintzen hor, eta baita arropa
garbiketara aritu ere. Behin baino
gehiagotan zera niotsan ene buruari:
hemen pertsona baten gisara
tratatzen zaituzte. Gustura nenbilen
eta gainera, egitekoak askotariko eta
bestelakoak ziren. Handik gutxira,
bolada bat aritu nintzen Birkbrunn-
en, Opus Dei-ko beste
estudianteentzako Egoitza batean,
alegia. Hiru urte igarota, hona
etortzea erabaki dut, herrialdea
ezagutzeko eta nire lanbide
prestakuntza hobetzeko.

**Nolako giroa dago Austrian
erlijioari dagokionez?**

Nire iritziz, prentsak begirune gutxiz darabil erlijioa eta jarrera kritiko bat erakusten du harekiko. Jendeak ez du erlijioaz jakiteko interes handirik. Neu, praktika erlijiosorik gabe urte asko eman eta gero, konbertitu nintzen 21 urte nituela, kristau talde bati esker, Bosnia-Herzegovinan dagoen Medjugorje-ko Andre Mariari eranspen handia diona. Nire ama ere bertan konbertitu zen eta berriro jaunartu zuen bere ezkontza egunetik 30 urte igaro eta gero.

Iaz, Vienako Gotzaina Ebanjelizazio misio bat sustatu zuen hirian. Astebetez mintzaldiak, topaketak eta mota ugariko ekitaldiak eratu ziren plaza, estadio, kafetegi, elizetan ea., “Kristori ateak zabal itzazue” goiburua zituztela. Mundu osotik bertaratutako jendea fedeaz mintzatu zen. Duela gutxi misio haren emaitzak argitaratu dira aldizkari batean: nabarmenak izan

ez arren, guztiz positiboak gertatu dira.

Euskal Herrian emakume askok
Andre Mariaren Irudi baten izena
dute eta baita Jesusen bizitzaren
uneren bat gogoratzen dutenak ere.
Harrigarri samarra bazait ere,
atsegin ere, atsegin dut hori.

Atsegin al duzu Donostiako hiria?

Itsasoa dut bereziki atsegin, igeri
egitea eta belaz nabigatzea,
horretarako aukerarik baldin badut.
Deigarri zait ikustea nola jende
gazteak banderak edo ikurrak
idunean zintzilik daramatzaten,
euren ideien erakusgarri, eta baita
ere zer nolako grinak harrotzen
dituen aberriarekiko zenbait kontuk.
Austrian, antza bederen, jendea
axolagabe samarra da halako
arazoetan.

Zure herrialdearen aldean, nolako diferentziak nabaritzen dituzu hemen?

Elikadurari dagokionez, fruta ugari kontsumitzen da hemen egunero; platerak prestatzeko moduak ere guztiz bestelakoak dira, eta hemen oliba olioak erabiltzen da, neu hartara ohituta ez nagoela. Beste garrantzi handiagoko kontuetara bagoaz, atentzioa ematen dit kaleetan nabaritzen dudana familia zentzua: gurasoek umeak aurkezten dizkiete euren ezagunei, paseatzean elkarrekin topo egiten dutenean, adibidez. Haurrak arretaz darabiltzate. Ikusi dudanez, gainera, pertsona nagusiak ere paseatzera ateratzen dituzte, baita mugitu ezin daitezkeenak ere, beren gurgil aulkietan. Batzuk zein besteak behar bezala janzen dituzte, egoki eta dotoreziaz.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/praktika-erlijiosorik-gabe-
urte-asko-eman-eta-gero-21-urte-
nituela-konbertitu-nintzen/](https://opusdei.org/eu-es/article/praktika-erlijiosorik-gabe-urte-asko-eman-eta-gero-21-urte-nituela-konbertitu-nintzen/) (2026 Mar
21)